

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRAIA-MAEZTUKO UDALA

Behin-behineko onespena ematea zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari

Udal honek, 2026ko irailaren 17an egindako bilkuran, behin-behineko onespena eman zion zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketari.

Horiek horrela, bat etorriz Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginaren 19.1 eta 19.2 artikuluetan ezarritakoarekin (1/2021 Araugintzako Foru Dekretua), ordenantza jendaurrean egongo da 30 egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta, interesa dutenek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Epea igaro eta erabaki horren aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez bada, erabakia behin betiko onetsizat emango da.

Maeztu, 2026ko irailaren 18a

Alkatea

ANA ASUNCIÓN FERNANDEZ DE MONJE ALZOLA